

BIME

ALL ABOUT MUSIC AND MORE

BIME LIVE JARDUERAK **urriaren 24tik azaroaren 2ra**

Showcases BIME Live

Urriaren 29tik 31ra – Bilbo

BIME Livek 90 showcase baino gehiago eskainiko ditu urriaren 29tik 31ra Alemania, Argentina, Kanada, Txile, Kolonbia, Espainia, Hungaria, Mexiko, Herbehereak, Palestina, Peru, Portugal, Dominikar Errepublika eta Venezuelako artisten eskutik. Hiriko areto nagusiak askotariko musika-estiloen lekuko izango dira, baita egungo musika-panoraman sortzen ari den talentuaren lekuko ere.

*Lehentasunezko sarbidea akreditatutako profesionalentzat
Publiko orokorarentzako sarrera librea edukiera bete arte*

Flasharekin egindako erretratuen oinarrizko argazkigintza-tailer praktikoa Jon Rodriguezekin

urriak 24 eta urriak 29/31 – Euskalduna jauregia

Tailer honen helburua erretratu-argazkiak optimizatzea da, oinarrizko materiala erabilita, hala nola flash txikiak edo argi jarraitua. Atal teoriko bat izango du tailerrak, eta beste atal praktikoa ere bai; BIME jaialdiaren egunetan izango da tailerra, Euskalduna jauregian, artista eta exekutibo akreditatuekin.

Izen-ematea:

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSda3ZL2v19nfRMgSy_e0Q8ku_wepC8f12Bs9VIOmbXRkLDVbw/viewform

Plazak mugatuak dira

ART & MUSIC Rita Payesekin - Kutxabankek babestutako Guggenheim Bilbao Museoaren zikloa

Urriak 26 – Guggenheim Museoa

Guggenheim Museoko Atrioan ART & MUSIC jaialdiaren edizio berri bat egingo da, Rita Payés kataluniarraren kontzertuarekin. Bertaraten direnek museoko erakusketez gozatu ahal izango dute, emozioaren eta musika-sustraien fusioan aditua den artista katalanaren arteaz gain.

Tiketak: <https://feverup.com/m/169724>

DJ tailerra: Miravalles eta LaMia Mari, Dabadaba aretoaren kolaborazioarekin **urriak 26 eta 27 – Azkuna Zentroa**

Euskal Herriko DJen harrobi izaki, Dabadaba aretoaren laguntzari esker DJ izaten ikasten hasteko tailerra izango da, eta atal teorikoa Mariel Sallaverryk emango du, aretoko programatzaileak, eta alde praktikoa, berriz, Miravalles eta LaMia Mari DJ lokalek.

Izen-ematea [hemen](#).

Plazak mugatuak dira.

"Break Nation: la electrónica que bailó Andalucía" proiektzioa, eta solasaldia David Pareja zuzendariarekin

urriak 27 – Bilborock

Laurogeita hamarrek hamarkadara itzularaziko digun dokumentala, Andaluzian *breakbeat*aren eta musika elektronikoaren garapenaren garaira. 1992tik 2002ra, mundu osoan bigarren mailakotzat hartu zen baina Europa hegoaldean sekulako garapen kolektiboa izan zuen genero baten goraldia, eztanda eta kolonizazioa ezagutu genituen. Proiektzioaren ondoren, David Pareja zuzendariarekin solasean aritzeko aukera izango dugu.

Sarrera doan, edukiera bete arte

Proiektzioa Filmin etxearen kolaborazioarekin: Anthony Lapia-ren "After" eta Gaspar Noé-ren "Climax"

urriak 28 – Azkuna Zentroa

Bi film frantses horietan musika elektronikoa eta *club* musika dira protagonista, eta musika *casting*eko aktoreetako bat da. "After" da Anthony Lapiaren lehen lana, eta Berlingo Zinema Jaialdiko Panorama sailerako hautatua izan zen; dokumentalean, Pariseko gau-klub bat agertzen da, *techno* musika nagusi, eta gazteek dantza egiten dute, kontsumitu, eta hitz egin. Gaspar Noé-ren "Climax" lanean, dantzari talde bat bizirauteko ahaleginetan ari da askotariko soinu-banda baten erritmoari jarraikiz: Daft Punk, Aphex Twin, Kraftwerk eta Giorgio Moroder.

Sarrera doan, edukiera bete arte

Edukiera mugatua da

"Gender Digital & Tech Upskilling" tailerra, estrategia digitalei buruzkoa.

Urriak 31 – Euskalduna Jauregia

Music Allyk eta Digitalfemsek emandako mintegi hau musika-sektoreko emakumeei zuzendutako prestakuntza-modulu trinko bat da. Emakumeek ezagutza digitalak dituzte, baina marketin digital musikaleko estrategietan dituzten ezagutzak eta trebetasunak hobetu behar dituzte. 5 orduetan soilik, parte-hartzaileek estrategia digitalak praktikan jartzeko ezagutzak eskuratuko dituzte, eskura dituzten baliabideak optimizatzen eta sustapen-ekintza eraginkorrenak identifikatzen ikasiz. Music Ally eta Digitalfems enpresek bertaratze-ziurtagiria emango dute.

Izen emateak: <https://airtable.com/applw3VzrCzUtLufO/pagmdSv7lujllwLY/form>

"The Place" liburuaren aurkezpena: Shain Shapiro

urriak 28 – Zabalgunea

La ciudad donde quiero estar liburuan, musikak gure hirietan izan dezakeen inpaktu ikaragarria aztertzen da, eta erreminta-kutxa bat izan daiteke musikazale, artista eta

aktibistentzat, haien komunitateak berrasmatzeko prozesuari ekin diezaioten. Erraz ulertzeko moduan kontatuta dago, hainbat hiritako pertsonen historia pertsonalen bitartez; ikuspegi benetan globala eskaintzen du musika gure egunerokotasunean txertatzeko moduei buruz, baina politika publikoetan baztertua izanik.
Sarrera doan, edukiera bete arte

Errolly Wallenen "Becoming a Composer" liburuaren aurkezpena

Urriaren 29a - Azkuna Zentroa merkatuaren (Iparragirre aretoa)

Errollyn Warren, izen handiko musikagile eta kantautorea, mundu klasikoan bezain gustura sentitzen da jazzean eta popean. Becoming a Composer-ek konpositore baten adimenari eta motibazioari begirada bitxi bat eskaintzen die, eta Wallenen haurtzaroko alderdiak hartzen ditu bere baitan, batzuetan problematikoak, eta Erresuma Batuan konpositore beltz gisa izandako hazkunde-esperientziak. Obra eta entsegu berrien aurrerabideari jarraitzen dioten behaketa bilduma bat biltzen du, egunerokoak, eta konpositore batek mundua nola ikusten eta entzuten duen argitzea du helburu.

Sarrera librea lekua bete arte

Marta Salicrúren "Rosalia de la A a la Z" liburuaren aurkezpena

Urriak 29 - Joker liburu-denda

Alfabetoak hizkuntza baten fonemak edo soinu bereizgarriak adierazteko erabiltzen diren letren serie ordenatua izendatzeko balio badu, liburu honek Rosaliak bere hizkuntzari forma emateko erabiltzen dituen elementuen zerrenda eskaini nahi du. Marta Salicrú kazetari musikalak artistak erabilitako kontzeptu ikonikoenen bidez eramango zaitu – bizkotxo txikia, despechá, motomami edo tra tra tra bezalako hitzak – , Rosalia fenomenoan barrena egindako bidaia basati eta zirraragarri batean. Bere estilo bakarretik eta berau ezaugarritzen duten fusio musikaletatik hasi eta modan eta sare sozialetan duen inpakturaino, orrialde bakoitza mugak ezagutzen ez dituen eta statu quo-ari desafio egiten dion artista baten unibertsoan murgiltzea da.

Sarrera librea lekua bete arte

"Puto Boomer" liburuaren aurkezpena: Roberto Moso

urriak 31 - Power Records

Puto Boomer liburua Roberto Mosoren bizitzan egindako bidaia bat da; Moso euskal kultura-panoraman ahots mitikoetako bat da, Zarama taldeko abeslari eta EITBko kazetari izan zen aldetik. Umorez, sentikortasunez eta giro onez gainezka, protagonistak bizi izan dituen pasadizoak, bere oroitzapenak eta sentsazioak aurkezten zaizkigu liburuan. Bere bizitza markatu duten pertsonen, gertaeren eta musikaren bitartez, oroitzapen intimoak ekarriko dizkigu —batzuk lehen aldiz, beste batzuk ez—, lehen pertsonan kontatuta, zuk ere zeure burua kokatuko zenukeen zona komunak azaltzeko; "puto boomer" bat ez bazara ere.

Sarrera doan, edukiera bete arte

BIME x Stereorocks deialdia

azaroak 1 – Stereorocks Club

BIMErekin elkarlanean, Stereorocks Club aretoak egun bateko programazioa prestatu du Euskal Herriko musika elektronikoko kolektibo, DJ eta/edo ekoizle garrantzitsuenak ezagutzeko; izan ere, deialdi ireki baten bitartez hautatuko baitira saio horretako kartela osatuko dutenak.

Sarrerak: <https://www.stereorocks.eus/gigs/stereorocks-x-bime-2024-showcase/>

The Mystery of the Pink Flamingo "proiektzioa eta Javier Polo eta Meneorekin solasaldia

Azaroak 1 – Azkuna Zentroa (Bastida aretoa)

Soinu ingeniari koadrikulatu bat Pink Flamingo ikono nagusiaren atzean dauden sekretuak ezagutarazteko ezohiko ikerketa batean murgilduko da: Eduardo Casanova, Kero Kero Bonito edo John Waters. Proiektzioaren ondoren, solasaldi bat izango dugu Javier Polo zuzendariarekin eta Meneo artistarekin.

Sarrera librea lekua bete arte

BIME Luthier Show

Urriaren 31tik azaroaren 2ra - Zabalgunea

Eskuz egindako musika-tresnak izango dira protagonista nazioarteko azoka honetan, eta lehen edizioaren helburua munduko hainbat lekutako luthierren topagune izatea da, eta eskuz egindako mota guztietako harizko instrumentuak egongo dira bertan: gitarra klasikoak, akustikoak, elektrikoak, biolinak, biolak, baxuak eta abar. Egun horietan, bisitariak kalitate goreneko artisau-instrumentuak ikusi eta probatu ahal izango dituzte, baita horiek egiten dituen artisaua ezagutu ere, eta sektoreko profesionalei eta publiko orokorrari zuzendutako hainbat tailer eta/edo *masterclass*etan parte hartu ahal izango da.

Sarrera doakoa da

Bilboko Nazioarteko Disko Azoka

Azaroak 1-2 – La Terminal - FICC

BIME barruan, Bilboko Nazioarteko Disko Azokaren XXII. edizioa izango da azaroaren 1etik 2ra. Zorrotzaurreko La Terminal – FICC kulturgunean egingo da. Bertan, mundu osotik etorritako saltzaileak aurkitu ahal izango dituzu, eta disko horietako asko azoketan soilik aurki daitezke, ez online. Milaka binilo, CD eta musikarekin zerikusia duen guztia. Bildumako diskoekin hasi, eta eskaintzako diskoekin bukatu.

Sarrera doakoa da

PRESSKIT

BIME Bilbao

BIME Pro – 29-31 de octubre

BIME Live – 24 de octubre al 2 de noviembre

BIME Bogotá mayo 2025

+info bime.org

@bimenet_ #bime

All about music and more